



15.alea  
(2013)

# Pobrezia eta bazterketa Euskal Herrian

2009tik hona, gutxienez 114.576 pertsona gehiago daude pobrezia egoeran. Zenbatekoak, baina, pobrezia neurtzeko metodoen arabera dira, hortaz, %15-%30 bitartean dago Euskal Herriko pobrezia-tasa.

Lurraldean arteko desberdintasunak azpimarragarriak dira, batik bat, Hegoalde eta Iparralderen artekoak: Iparraldeen pobrezia-aren proportzioa altuagoa da, baina estatuak politika publikoen bitartez orekatzen du; Hegoalden, aldiz, pobrezia-aren bilakaera negatiboa izaten ari da, baita oso azkarra ere.

## [INE]

INEk "Encuesta de Condiciones de Vida 2013" delakoaren behin-behineko emaitzak kaleratu berri ditu. Horren arabera, Hegoalden biztanleriaren %49,7-k hilabete amaierara iristeko nolabaiteko zailtasunak ditu (1.407.136 pertsona orotara).

## [EJ]

EAErako Eusko Jaurlaritzaren "Pobrezia eta Desberdintasun sozialen inkesta 2012" delakoaren arabera, biztanleriaren %35,6 (771.945 pertsona) ongizate prekario baten eta pobrezia-aren artean bizi da.

## Edukia

Pobrezia eta esklusioa EHan

Datu orokorrak	1
Neurgailuak	2
Hausnarketa eta baliabide grafikoak	3-4



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behatokia

[www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)  
[www.basqueinfo.net](http://www.basqueinfo.net)

komunikazioa@gaindegia.org  
943 304 365



Pobrezia egoeran bizi diren pertsonen kopurua neurtzea funtsezko ariketa da ekonomikoki garatutako gizarteetan. Honek, batetik, biztanleriaren zati baten bizi baldintzak ezagutzeko aukera ematen du, eta, bestetik, gizarte horretan dagoen gizarte-kohesio maila erakusten du. Kohesio ezak, aldiz, despaketotasun eta bazterketa-eremuak sortzen ditu, baita gizartearekiko eta lurraldearekiko loturen etetea ere.

Hori dela eta, gizarte-kohesioa ezinbesteko helburu bilakatzen da edozein gizarterentzat, are gehiago, Euskal Herriarentzat, bere aniztasun ekonomiko zein administratiboagatik eta lurralde-aniztasunagatik. Alabaina, azken urteotan desorekek gorantz egin dute eta bizitzeko nahikoa baliabide ez dutenen kopurua ere etengabe igotzen ari da.

### Europar Batasunaren neurgailuak (EUROSTAT)

EUROSTATen datuak baliatuz, 2012an Euskal Herrian 520.416 pertsona zeuden pobrezia edo baztertze arriskuan, biztanleria osoaren %16,6. 2009. urtetik hona, 114.576 pertsona gehiago daude egoera honetan (biztanleriaren +%3,5) eta Euskal Herria bere osotasunean hartuta, batik bat, EAEn igo da proportzio hori.

Soilik pobrezia arriskua (eta ez esklusioa) pairatzen duten pertsonak neurtzeko metodologia aplikatzen badugu, Euskal Herriko indizea %11,8 da 2012an. Horrek esan nahi du 369.347 pertsona daudela egoera horretan. 2009. urtetik 2012ra, baina, kopurua igo egin da: 102.333 pertsonetan igo da, hain zuzen.

*Gabezia material larriak* dituen biztanleria da egoera larrienean dagoena, zehazki, 87.759 pertsona (biztanleriaren %2,8). Adierazle honen bilakaera, ordea, besteeikiko desberdina da, eta krisia hasi zenetik hazkunde nabaria bizi izan du, 2009 urtean eta, batik bat, 2011 urtean.

Enpleguaren intentsitateari buruzko datuei erreparatzen badiegu, 2012an 317.199 pertsonak intentsitate oso baxuko enplegua zuten (alegia, ordu gutxiko enplegua). 2009. urtetik ia bikoiztu egin da egoera horretan dagoen biztanle kopurua, izan ere, azken urtean 150.198 pertsona gehiago dira zerrenda horretan. Beraz, ulertuta enplegua dela biztanleriaren gehiengoak diru-sarrerak izateko iturri, azpimarragarria da biztanleria osoaren %10 egoera horretan bizitzea, are gehiago kontuan izanik beste 200.000 pertsona langabezian daudela (2012).

***Pobreziaren inguruko neurgailu desberdinek oso bestelako emaitzak ematen dizkigute, baina gauza batean bat datoz: pobreak gora egin du Euskal Herrian.***

### Ikerlari sozialen arabera

Europako hainbat ikerlari sozialek pobrezia kalkulatzeko beste neurgailu bat baliatzen dute. Lurralde bakoitzeko BPGaren arabera egiten dute pobreziaren indizearen neurketa: hala, pertsona baten diru-sarrerak bizi den herrialdearen BPGaren %37,5etik beherakoa bada, pertsona hori pobrezia egoeran bizi dela diote.

Neurgailu hori baliatuko bagenu, egun Euskal Herriko pobreziaren muga 937€-tan legoke (hileko soldata), edo 803€-tan (14 pagako soldata), alegia, urteko 11.243 euroko diru-sarreran (2013rako aurreratutako datuen arabera). Horrek ondorio honetara eramaten gaitu: biztanleriaren %28,8 (900.000 pertsona) diru-sarrera horien azpitik bizi da.

Neurgailu horren arabera, 2007an Euskal Herriko pobreziaren muga 1.022 eurokoa zen, baina geroztik beherantz egin du BPGarekin batera, egungo 937€-tara iritsi arte. Beherakada hau bestelako herrialde batzuekin alderatu beharra dago, esaterako, Frantziako Aquitania (725€ hileroko 2010 urtean; 734€ 2007ean) edo Baden-Württemberg Alemanian (1.000€ hileko 2010ean; 1.016€ urteko 2007ean).

Era berean, irizpide honi jarraiki, nabariak dira Euskal Herriaren baitan aurkitzen ditugun desberdintasunak: egun, Hegoaldeko BPGarekin egindako aurreikuspenei begirata, 2013an pobreziaren muga 954€-tan kokatzen da, aldiz, Iparralden 655€-tan legoke.

Arestian Hegoalde eta Iparraldeko diru-sarrerei buruz esandakoa kontuan hartuz, eta Lanbidearteko oinarrizko soldadari dagokionez (Hegoalde 645€/hilean, Iparralde 1.430€/hilean), aldeak nabarmenak dira. Iparralden diru-sarrera apalagoak izan litezke (655€ hilean), baina konpentsazio laguntzek jende askoren diru-sarrerak osatzen dituzte; aldiz, Hegoalden, oinarrizko sarrerak handiagoak izan arren (954€ hilean), Lanbidearteko Soldata apalagoa denez, konpentsazio laguntzak sarrera txikiko jende multzoaren zati batek bakarrik jasotzen ditu. Hala, pobreziaren muga azpitik geratzen dira, esaterako, 2012ko batez besteko alarguntza-pentsioa (811€ hileko), zurtasun pensioa (480€/hilean) edo familiakoan mesedea (682€ hilean).


Esan beharra dago, 2010ean Iparraldeko batez besteko soldata lan orduko Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren gainetik bazegoen ere, emakume gazteen kasuan (18-25 urte) eta barnealdeko gazteen kasuan ez zela horrela gertatzen. Termino orokorretan, errenta pertsonala altuagoa da kostaldean, Atturri aglomerazioan eta Hego Lapurdi zonaldean, batik bat. Era berean, bi zonalde hauetan ematen dira soldaten arteko desoreka handienak, beraz, honek erakusten digu batez besteko errentaren kalkularen atzean mikro-errealitate anitz ezkatzen direla.

## Euskal Herria European

Euskal Herriari Europako testuinguruan begiratzeko badiogu, pobrezia dagokionean postu baxuetan dago, nahiz eta esan bezala goranzko joera kezagarria izan.

Hala, Euskal Herriko datuak (%16,6) Austria (%16,9), Suiza (%17,2) edo Finlandiaren (%17,2) antzekoak dira. Frantzia (%19,1) eta Alemania (%19,6) urrutiago ditu, eta askoz urrutiago Espainia (%28,2).

Pobrezia tasa altuena duten herrialdeak ekialdekoak dira: Bulgaria (%49,3), Rumania (%41,7), Letonia (%36,6), Lituania (%32,5) edo Hungaria (%32,4), baita Grezia ere (%34,6).



## HAUSNARKETA

Pobrezia bizi diren pertsonen kopuruak gora egin du Euskal Herrian azken urteotan, eta lurralde guztietan gainera. Ez dira lanik gabeko pertsonak, ezta hezkuntza jaso ez dutenak ere: askotariko pertsonak osatzen dute multzo hori. Kasu askotan lan-baldintzak okertu diren sektore ekonomikoetan lanean ari ziren pertsonak dira, edota euren diru-sarrerak baino bizi maila altuagoa (etxebizitza, zerbitzuak...) duten zonaldeetan bizi direnak.

Hartzen dugun neurgailua hartzen dugula, hori da ondorioa: pobrezia gora egin du. Baina horretan bakarrik dago adostasuna: zenbatekoak emateko orduan deigarria da datuen arteko desberdintasuna, ez baitago adostasunik pobrezia eta desoreka sozialak neurtzeko erabili beharreko neurgailu edo adierazleen artean. Ondorioz, emaitza %15-%30 bitartean dago.

Errealitate hau, baina, politika sozialen aurrekontuekin oso lotuta dago. Halaber, aintzat hartu beharra dago daukagun estruktura produktiboa eta lurralde politika: egun, sortzen den enplegua prekarioa da, batik bat, gazte eta emakumeentzat. Gainera, zenbait zonalde geografiko, kapitaletatik urrun daudelako (eta garapen politika egokirik ez dutelako), ikusgai ez diren egoera larriak bizi dituzte, gazteriarekin eta pertsona nagusiekin loturikoak.

Gizarte-kohesioa justizia sozialarekin lotutako helburua da. Euskal Herriaren kasuan, halaber, lurralde koherentsia eta herri sentimenduekin ere lotuta dator.

Laguntzaileak:



### Iturriak:

EUROSTAT, INE, EUSTAT, IEN, INSEE, Eusko Jaurlaritzaren eta Enplegu eta Espainiako Gizarte Segurantzaren ministerioa.